

Donostian, 2025eko maiatzaren 30ean

Gurasoak, agur:

2025-2026 ikasturterako liburuak eta materiala eskuratzeko ikastolak abian jarriko duen prozeduraren berri ematera gatozkizue.

LIBURU ETA MATERIAL ZERRENDIA:

Ikasmaila honi dagokion zerrenda eta eskaerak egiteko azalpenak zirkular honen azpiko aldean aurkituko dituzue eta nahi izanez gero ikastolako web orrian ere bai.

Zerrenda horretan "BERRERABILGARRIA" zutabearen "BAI" azaltzen bada, aurreko ikasturtean beste ikasleren batek erabilitakoa liburu edo materiala eskuratu dezakezuela esan nahi du. "EZ" azaltzen bada, liburu edo material berria eskuratu beharko duzue.

Zerrenda horretan "SALMENTA/MATERIALA" zutabearen "SALMENTA" jartzen duen kasuetan, liburu edo material hori ikastolan salgai egongo da, baina kanpoan eskuratzeko aukera ere izango duzue. "MATERIALA" jartzen duenetan, berriz, material hori gelan izango dute eta ezinbestekoa da eskaera ikastolan burutzea inprimakia beteaz. Hortaz, derrigorrez ikastolan eskuratu beharreko materiala honoko hau da:

INGURUNEAREN EZAGUTZA. MATERIAL DIDAKTIKOA
IRAKURKETA-IDAIZKETA. MATERIAL DIDAKTIKOA
MATEMATIKA. MATERIAL DIDAKTIKOA
ARKATZA, BORRAGOMA, TXORROSKILOA, GORRI-URDINA, KOLA ETA GORAIZEAK

LIBURUEN ETA MATERIALEN ESKAERA EGITEKO PROZEDURA:

1. Mezu honekin batera doakizuen inprimakia bete **ekainaren 6a** baino lehen. Ikastolak ez ditu bideratuko data honetatik aurrerako eskariak
2. Ikastolan erosi beharreko liburu eta material guztietan BAI sakatuta inprimakia bidali ondoren, zuek emandako helbide elektronikora mezu bat iritsiko zaizue. Bertan agertuko dira zuek eskatutako liburu eta material guztiak, guztira ordaindu beharreko kopuruarekin. **Irailean** ondorengo kontu korrontean egin beharko duzue diru kopuru zehatz horren sarrera:

KUTXABANK ES96 2095 5206 0710 6122 6782
Azalpenean IKASLEAREN IZENA – LIBURUAK - MAILA jarri mesedez.

3. Liburuak eta materiala irailean banatuko ditu tutoreak. Jaso ahal izateko bankuko ordainagiria aurkeztu beharko duzue, ikastolako lehenengo egunean.

LIBURU ITZULKETAK:

Ikastolak ez ditu irailaren 15a ondoren itzulketak onartuko.

MESEDEZ, ERRESPETA ITZAZUE EPEAK

Besterik gabe, agurtzen zaituztegu

ZUZENDARITZA

MATERIAL ETA LIBURUEN ZERRENDA

LH 1

IKASTURTEA	IKASMAILA	ARGITALETXEA	LIBURUA	ISBN	BERRERABILGARRIA	SALM/MAILEG	SALNEURRIA
2025/2026	LH1	MATERIALA	INGURUNEAREN EZAGUTZA. MATERIAL DIDAKTIKOA (<i>ikastolan emango zaie</i>)	978-84-1240-663-4	EZ	MATERIALA	20,00
2025/2026	LH1	MATERIALA	IRAKURKETA-IDAZKETA. MATERIAL DIDAKTIKOA (<i>ikastolan emango zaie</i>)			MATERIALA	20,00
2025/2026	LH1	MATERIALA	MATEMATIKA. MATERIAL DIDAKTIKOA (<i>ikastolan emango zaie</i>)			MATERIALA	25,00
2025/2026	LH1	IKASTOLEN ELKARTEA	HOCUS & LOTUS 1. PLAYBOOK	09913	EZ	SALMENTA	33,13
2025/2026	LH1	MATERIALA	KOADERNO ESPIRALD. MARRADUN HANDIA (Tapa gogorra) (marra bakarra). LIDERPAPEL (ziklo osorako)			SALMENTA	2,25
2025/2026	LH1	MATERIALA	3 KARPETA: PLASTIKOZKOAK, SOLAPADUNAK, GOMAREKIN, FOLIO TAMAINAKOAK (berdea.gorria, urdina) (ziklo osorako)		BAI	SALMENTA	4,50
2025/2026	LH1	MATERIALA	ARKATZA, BORRAGOMA, TXORROSKILOA, GORRI-URDINA, KOLA ETA GORAIZEAK (<i>ikastolan emango zaie</i>)			MATERIALA	5,50

MATERIAL ETA LIBURU ESKAERA: LH 1